# 2021EKO URRIAREN 13KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2021

**Akta zenbakia:** 9/2021
**Bilera data:** 2021-10-13
**Bilera mota:** Ez-ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00-20:12
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Jorge Segurado Iriondo

**Zinegotziak:**

Mikel Pagola Tolosa
Lucía Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mikel Artola Pagola
David Rosco Jorge
Ainara De Miguel Berasategui
Nekane Ubillos Cipitria
Ainhoa Jauregi Cabezón
Xabier Yurramendi Garmendia
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

**Idazkaria:**
Xabier de la Mota Vázquez

**Kontuhartzailea**:

Aitziber Zurutuza Arza

**Acta nº:** 9/2021
**Fecha:** 13-10-2021
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00-20:12
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**

**Alcalde:** Jorge Segurado Iriondo

**Concejales:**

Mikel Pagola Tolosa
Lucía Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mikel Artola Pagola
David Rosco Jorge
Ainara De Miguel Berasategui
Nekane Ubillos Cipitria
Ainhoa Jauregi Cabezón
Xabier Yurramendi Garmendia
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

**Secretario:**
Xabier de la Mota Vázquez

**Interventora:**

Aitziber Zurutuza Arza

Urnietan, 2021eko urriaren 13an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00etan, Jorge Segurado Iriondo alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

En la villa de Urnieta a 13 de octubre de 2021, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Jorge Segurado Iriondo, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**AZTERGAIAK:**

**1.- 2022. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak onartzea.**

**2.- 2022rako Ordenantza Fiskalak (Esp. 2021KORO0049).**

**ORDEN DEL DIA:**

**1.- Aprobación tarifas servicio de autotaxi para el año 2022.**

**2.- Ordenanzas Fiscales 2022 (Exp. 2021KORO0049).**

**3.- 06/2021 kreditu aldaketa (kreditu gehigarria) onartzea (Esp. 2021KKAL0006).**

**4.- Beterri-Buruntza Mankomunitatearen estatutuen onarpena (Esp. 2021IORO0071).**

**5.- Beterri-Buruntza Mankomunitatearen ordezkarien izendapena (Esp. 2021IORO0071).**

**3.- Aprobación modificación crédito 06/2021 (crédito adicional) (Exp. 2021KKAL0006).**

**4.- Aprobación de los Estatutos de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza (Exp. 2021IORO0071).**

**5.- Designación de representantes de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza (Exp. 2021IORO0071).**

******

**1.- 2022. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak onartzea.**

Alkateak gaia aurkeztu du.

Gonzalez jaunak Gasteizen atzo gertatutako hilketa matxista gaitzesten hasi da. Akordioari dagokionez, 2,9ko igoera planteatu da, eta baietz bozkatuko dute. Ez dator bat ordenantza fiskalekin, langileen kolektiboaren aldeko igoera baita, kasu honetan taxilariena.

De Miguel andreak azaldu du bat egiten duela PSOEren kondenarekin, edozein biolentzia matxistekiko repulsa osoa. Aldeko bozka taxiaren igoerarekin.

Pagola jaunak dio gustatu edo ez, urtero jaurlaritza dela kudeatzen dituena tasak, baina eskatzen duela herri bakoitzean onartzea igoerak. Egia da azken 3 urteetan buruntzaldeeko taxi batzordeak 0ko igoera onartu dutela, eta aurten 2,9 bozkatuko da, eta horrekin bat egiten dute. Eta Gasteizeko kasuarekin ere bat egiten dute, batez ere beste bi biktima daudelako, alabak hain zuzen.

******

2020ko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 2020/12/18), Euskadiko Prezioen Batzordeak onartu zituen auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek aurkeztutako 2021.urterako tarifak.

**1.- Aprobación tarifas servicio de autotaxi para el año 2022.**

El Sr. Alcalde presenta el tema.

El Sr. González comienza condenando el asesinato machista ocurrido ayer en Vitoria. En cuanto al acuerdo, se plantea una subida de un 2,9, a la que votarán que sí. Es distinto a unas ordenanzas fiscales, pues es una subida favorable a un colectivo de trabajadores, en este caso los taxistas.

La Sra. De Miguel explica que comparte la condena del PSOE, toda la repulsa por cualquier violencia machista. Voto favorable con la subida del taxi.

El Sr. Pagola dice que les guste o no, cada año es el gobierno vasco el que gestiona las tasas, pero que exige que en cada localidad se aprueben las subidas. Es cierto que en los últimos 3 años la comisión de taxis de Buruntzaldea ha aprobado la subida de 0, y este año se votará un 2,9, al que se suman. Y también se suman al caso de Vitoria, sobre todo porque hay otras dos víctimas, concretamente sus hijas.

******

Mediante Resolución de 2 de diciembre de 2020 (BOPV 18/12/2020), la Comisión de Precios de Euskadi aprobó las tarifas para el servicio público de transporte urbano de viajeros en auto-taxi para el año 2021.

Urnietako udala

# 2021EKO URRIAREN 13KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2021

Ikusita G. TAXI, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA eta AGITAX, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA – ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteek egindako idatziak, zeinetan udaletxeek 2022rako autotaxien tarifak onartzea eskatzen den.

Ikusita aurkeztutako azterketa ekonomikoak.

Ikusita Buruntzaldeako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak, 2021eko irailaren 24an egindako bileran, 2022. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak onartu zituela.

Hiri barruan bidaiariak auto-taxiz garraiatzeko tarifek prezioak kontrolatzeko arautegia bete behar dute, «autonomia-erkidegoen eremuan baimendutako prezioen» modalitatean, hala ezarrita baitago Zerga-arloko eta Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Liberalizatzeko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretuaren 16.4 artikuluan (ekainaren 8ko BOE, 139. zk.).

Euskadiko Prezioen Batzordeak du prezioen kontrolaren inguruko eskumena, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duen otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuarekin bat etorriz (otsailaren 16ko EHAA, 31. zk.) eta Baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedura ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduari jarraituz (uztailaren 6ko EHAA, 128. zk.).

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 13
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Urnietako Eh Bildu: 4
Udal talde sozialista: 2

Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntza Batzorde Informatzaileak 2021eko urriaren 7an egindako irizpena,Udalbatzarrak aho batez honako hau

Vistos los escritos de G. TAXI, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA y AGITAX, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA – ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DEL TAXI en los que se solicita la aprobación de las tarifas de autotaxi para 2022 por parte de los ayuntamientos.

Vistos los estudios económicos presentados.

Visto que la Comisión Comarcal del Taxi de Buruntzaldea en reunión celebrada con fecha 24 de septiembre de 2021, aprobó las tarifas para el año 2022.

Las tarifas correspondientes al transporte urbano de viajeros en auto-taxi están sujetas a la normativa de control de precios en la modalidad de «precios autorizados de ámbito autonómico», a tenor del artículo 16.4 del Real Decreto-Ley 7/1996, de 7 de junio sobre Medidas Urgentes de carácter fiscal y de Fomento y Liberalización de la Actividad Económica (BOE n.º 139, de 8 de junio).

La Comisión de Precios de Euskadi ejerce dicha competencia de acuerdo con el Decreto 35/2010, de 2 de febrero, regulador de la Comisión de Precios de Euskadi (BOPV n.º 31, de 16 de febrero), y de la Orden de 15 de junio de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se establece el procedimiento de revisión de precios autorizados y precios comunicados (BOPV n.º 128, de 6 de julio).

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 13
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Urnietako Eh Bildu: 4
Grupo municipal socialista: 2

En contra: 0
Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Organización de 7 de octubre de 2021, el Pleno ha adoptado por unanimidad el siguiente

# 2021EKO URRIAREN 13KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2021

**ERABAKI DU:**

**Lehena.-** 2022 urterako taxien herri barruko tarifak onartzea (eranskina)

**Bigarrena.-** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailera (Euskadiko Prezioen Batzordea), G. TAXI, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA eta AGITAX, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA – ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteetara jakinaraztea, dagokion ondorioetarako.

**ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar la tarifa urbana de los taxis para el año 2022 (anexo)

**Segundo.-** Remitir dicho acuerdo al Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco (Comisión de Precios de Euskadi) y trasladarlo a G. TAXI, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA y a AGITAX, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA – ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DEL TAXI, a los efectos oportunos.

**ERANSKINA / ANEXO**

| PROPUESTA TARIFA URBANA 2022<br>2022ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **TARIFA 1 *** | | | **TARIFA 2 **** | | |
| **Tarifa mínima** | **Kilómetro recorrido** | **Hora de espera** | **Tarifa mínima** | **Kilómetro recorrido** | **Hora de espera** |
| **Gutxiena** | **Egindako Kilometroa** | **Itxaron Ordua** | **Gutxiena** | **Egindako Kilometroa** | **Itxaron Ordua** |
| 5,5197 | 1,1735 | 22,5187 | 6,5792 | 1,8797 | 35,3901 |

**La Tarifa Mínima incluye 1,5 Km. De recorrido o cinco minutos de espera.**
(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22.00 horas.
(**) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente esta tarifa desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.

**Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.**
(*) Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte, tarifa hau aplikatuko da.
(**) Tarifa hau egunero 22:00etatik 7:00ak arte aplikatuko da. Igandeetan, araudi autonomikoak eta lokalak erabakitako jaiegunetan, larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31ean ere aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

**2.- 2022rako Ordenantza Fiskalak (Esp. 2021KORO0049).**

Mercader andreak gaia aurkeztu du:

**2.- Ordenanzas Fiscales 2022 (Exp. 2021KORO0049).**

La Sra. Mercader presenta el tema:

# 2021EKO URRIAREN 13KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 13 DE OCTUBRE DE 2021

"UDALA herritarren zerbitzura eta beraien bizi kalitatea bermatzeko dago. Ordenantza fiskalen bitartez, zerbitzu hauen kalitatea bermatzeko AUKERA izaten dugu, gure herritarrei eskaini beharreko zerbitzuak hoberenak izan daitezen beharrezkoak diren diru sarbideak eskuratu baititzakegu.

Zerbitzu hauek koste bat dute, eta ezinbestekoa da sarreren eta gastuen arteko OREKA mantentzea. Arrazoi bategatik edo bestearengatik urtetik urtera igotzen eta handitzen doan kostea.

Gure ardura beste behin erantzukizunez jokatzea izan da, eta gure helburua herritarrek dituzten zerbitzuen kalitatea bermatzea denez, ezinbestekoa gertatzen da igoera hauek aplikatu behar izatea.

KPIaren datuei dagokionez, Indize hau azken hilabeteetan ere goraka doa.

Hala nola abuztuan 3,3%koa izan zen. Eta dirudienez, Irailean 4.0% batekin itxi egingo da (datu hau publikatzear dago).

Urnietako Udalak azken urtetan UZTAILEKO datua hartu izan du kontutan, eta horrela egitea planteatzen dugu aurten ere. Uztailean KPI-aren datua 2,9% koa zen eta hori da proposatzen dugun igoera orokorra tasa eta zergei dagokionez.

OROKORREAN %2,9ko igoera esaten dugu, zeren eta gobernu talde bezala, zerga batzuk gaur egun dauden bezala mantentzeko proposamena aurkeztu baitugu: hau da, zerga batzuetan KPIko igoera hau ez zaie aplikatuko, eta dauden bezala mantenduko dira.

Hauek genituzke igoera 0 izateko planteamendua egin ditugun tasa eta zergak:

- Ura eta estolderiari dagozkionak.
- Gizarte zerbitzuen arloan:
  - Adinekoen tutoretzapeko etxebizitza zerbitzukoak
  - Etxez-etxeko laguntza zerbitzuarenak
  - Eguneko arreta zerbitzuarenak
- Jabetze eta guraso eskoletakoak
- Baratze ekologikoetakoak
- Saroben eskeintzen diren zinea eta beste emanaldietako sarrera eta bonoetakoak

"El Ayuntamiento está al servicio de la ciudadanía y para garantizar su calidad de vida. A través de las ordenanzas fiscales tenemos la OPORTUNIDAD de garantizar la calidad de estos servicios, ya que podemos acceder a los ingresos necesarios para que los servicios a prestar a nuestros ciudadanos sean los mejores.

Estos servicios tienen un coste y es imprescindible mantener un EQUIPO entre ingresos y gastos. Un coste que por una u otra razón va subiendo y aumentando año tras año.

Nuestra responsabilidad ha sido una vez más actuar con responsabilidad, y dado que nuestro objetivo es garantizar la calidad de los servicios de los que disponen los ciudadanos, resulta imprescindible la aplicación de estos incrementos.

En cuanto a los datos del IPC, este Índice sigue creciendo en los últimos meses.

Así, en agosto fue del 3,3%. Y todo apunta a que en septiembre se cerrará con un 4.0% (dato que está a punto de publicarse).

El Ayuntamiento de Urnieta ha tenido en cuenta en los últimos años el dato de JULIO, y así lo planteamos un año más. En julio el dato del IPC era del 2,9% y ese es el incremento general que proponemos en cuanto a tasas e impuestos.

EN GENERAL decimos un incremento del 2,9%, ya que como equipo de gobierno hemos presentado una propuesta para mantener algunos impuestos tal y como están en la actualidad: es decir, en algunos impuestos esta subida del IPC no se les va a aplicar y se van a mantener tal y como están.

Las tasas e impuestos que hemos planteado para que el incremento sea de 0 serían las siguientes:

- Agua y acantarillado.
- En materia de servicios sociales:
  - Del servicio de vivienda tutelada de personas mayores
  - Del servicio de ayuda a domicilio
  - Del servicio de atención diurna
- De la propiedad y de las escuelas de padres y madres
- De huertas ecológicas
- Entradas y bonos de cine y otras proyecciones en Sarobe

Beste zergetan berriz, eta lehenago esan dudan bezala, KPIko igoera aplikatzea litzateke gure nahia. ( % 2,9koa ).

Igoera honetan bi salbuespen aipatu behar dira:

- Bide publikoen erabilera pribatuan inguruan: mahaia eta aulkien tasa berreskuratzea proposatzen dugu, baina 2020 zegoen zergan ERDIA aplikatuz.
- Bigarren salbuespen gisa ibilgailuen gaineko zerga aurkitzen da. Geroxeago aipatuko dugun bezala, jasangarritasun eta efizientzia energetikoaren alde ordenantza hauetan harturiko erabakietako batek ibilgailuen zergari eragiten dio.
  Kutxatzeko arrisku handiagoa dute zaldi fiskal gehiago dituzten ibilgailuek. Beraz, hauei aplikatzen zaizkien koefizientziak igotzea proposatzen dugu. Hauen tasak garestitu egingo dira. Laburbilduz, gehiago kutxatzen duenak, gehiago ordaindu dezala.

Goazen HOBARIETAZ hitzegitera.

Gure proposamenean, jasangarritasun eta trantsizio energetikoa bermatzeko helburuekin jarraitzen dugu, eta ZERGA-ABANTAILAK aplikatu nahi ditugu. Non?

- Alde batetik, ibilgailu elektriko eta hibridoetan.
- Beste aldetik, eguzki energia edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektriko ahalbidetzen duten ekipoak edo sistemak ezartzerakoan.
- Azkenik, A edo B motatako energia eraginkortasuneko etiketa bat lortzeko energia birgainkuntza xedea duten obra eta etxebizitzetan.

Eta hobari hauek 3 zerga nagusi hauetan kontutan izango dira:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan, ICIO
- Ondasun higiezin gaineko zergan IBI
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan, IAE (izan ere, aurten hobari hau lehenengo aldiz zerga honetan aplikatzea proposatzen dugu)

En el resto de impuestos, y como he dicho anteriormente, nuestro deseo sería aplicar el incremento del IPC (2,9%).

En este incremento hay que señalar dos excepciones:

- En torno al uso privado de las vías públicas: proponemos recuperar la tasa de mesas y sillas, pero en el impuesto 2020 se aplicaba MEDIO.
- Como segunda excepción se encuentra el impuesto de vehículos. Como comentaremos más adelante, una de las decisiones adoptadas en estas ordenanzas en favor de la sostenibilidad y la eficiencia energética afecta al impuesto de vehículos.
  Más riesgo de arqueo tienen los vehículos con más caballos fiscales. Proponemos, por tanto, elevar las coeficiencias que se aplican a las mismas. Las tasas se encarecerán. En resumen, el que coja más, que pague más.

Vamos a hablar de MEJORAS.

En nuestra propuesta seguimos con los objetivos de garantizar la sostenibilidad y la transición energética y queremos aplicar VENTAJAS FISCALES. ¿Dónde?

- Por un lado, en vehículos eléctricos e híbridos.
- Por otro lado, a la hora de implantar equipos o sistemas que permitan el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar u otras energías renovables.
- Para obtener una etiqueta de eficiencia energética A o B en obras y viviendas con fines de regeneración energética.

Y estas bonificaciones se tendrán en cuenta en los 3 principales impuestos:

- En el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, ICIO
- IBI en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles
- En el Impuesto sobre Actividades Económicas, IAE (ya que este año proponemos aplicar por primera vez esta bonificación en este impuesto)

Gainera, hobariak eskatzeko epea ere urtarrilak 31arte luzatzea proposatzen dugu.

Azkenik, Gobernu Taldeak berdintasun politikak aurrera eramateko konpromiso politikoa du, eta III. Berdintasun Planaren lehentasun politiko bat Bizitzen Zaintza da. Zaintzei dagokien lekua eman behar diegu, zaintzen garrantzia aitortu eta herri bezala zaintza-lanen berrantolaketa modu justuago eta orekatuago batean egiteko ariketa abiatuko da III. Plan honen baitan.

Ariketa honen emaitzak lortu bitartean eta lehen urrats bezala, guraso bakarreko familien kontsiderazioa gehitzen dugu Ordenantza hauetan, eta familia ugariek duten onura berdina aplikatuko diegu honako tasa hauetan: musika eskolan, udalekuetan, eta udal ikastaroetan."

Gonzalez jaunak honako hau azaldu du:

"Ordenantza Fiskalen aldaketari buruzko txostenean honako hau jasotzen da:

"Toki-ogasunak arautzen dituen 11/1989 arauan aurreikusitakoaren arabera, toki-erakundeek baliabide nahikoak izango dituzte beren helburuak betetzeko."

Beste atal batean hau dio:
"Ordenantza Fiskalen bidez, udalerriek aurreko paragrafoan aipatutako araudia egokitu ahal izango dute horietako bakoitzaren antolaketa- eta funtzionamendu-araubidera".

Bada, hori esanda, gure taldea ez dator bat, ez zuen helburuekin, ez sortu duzuen antolaketarekin, ez eta Udalaren funtzionamenduarekin ere. Nahikoa arrazoi, Ordenantza Fiskal berrien aurka bozkatu duzuelako.

Hala ere, argudio gehiago ditugu aurkako boto horretarako:

1.- Sozialistok ez gatoz bat % 2,9ko igoera orokortuarekin. Igoera horrek urnietarren arazoekiko axolagabetasun nahasgarria erakusten du, edozein administraziori ez baitagokio. Hemen ezer gertatuko ez balitz bezala idatzita daude, jendearen sufrimenduarekin zerikusirik ez dutenak. Eta gertatu

Además, proponemos ampliar el plazo de solicitud de bonificaciones hasta el 31 de enero.

Finalmente, el equipo de Gobierno tiene el compromiso político de llevar a cabo las políticas de igualdad y el III. Una prioridad política del Plan de Igualdad es la Vigilancia de las Vidas. Debemos dar un lugar a los cuidados, reconocer la importancia de los cuidados y poner en marcha un ejercicio de reorganización de los cuidados como pueblo de una manera más justa y equilibrada. Dentro de este plan.

A la espera de obtener los resultados de este ejercicio y como primer paso, incluimos en estas Ordenanzas la consideración de las familias monoparentales, a las que aplicaremos el mismo beneficio que a las familias numerosas en las siguientes tasas: escuela de música, colonias y cursos municipales."

El Sr González expone lo siguiente:

"En el informe de la modificación de las Ordenanzas Fiscales se recoge lo siguiente:

"Que según lo previsto en la Norma reguladora de las Haciendas Locales 11/1989, las Entidades Locales dispondrán de lo recursos suficientes para el cumplimiento de sus fines".

En otro apartado dice que:
"A través de la Ordenanzas Fiscales, los municipios podrán adaptar la normativa a que se refiere el apartado anterior al régimen de organización y funcionamiento de cada uno de ellos".

Pues bien, dicho esto, nuestro Grupo no comparte ni vuestros fines, ni la organización que habéis creado, ni tampoco el funcionamiento que hacéis de este Consistorio. Razones más que suficiente por la que os habéis ganado nuestro voto en contra de las nuevas Ordenanzas Fiscales.

No obstante, tenemos más argumentos para este voto en contra:

1.- Los socialistas no compartimos la subida generalizada del 2,9%. Esta subida muestra una indiferencia desconcertante con los problemas de los/as urnietarras, impropias de cualquier administración. Están redactadas como si aquí no pasara nada, ajenas al sufrimiento de la gente. Y sí ha pasado, y lo que es peor, está pasando. Esta

da, eta okerrena gertatzen ari da. Igoera hori zama ekonomiko handia izango da etxe guztietan.

2.- Ez dugu ulertzen ur-tasa izoztea. Tasa eta zerga gehienei % 2,9ko igoera aplikatzen badiezue.

Batzordean egindako galderari erantzun zitzaion oreka bilatzeko zela. Zeren oreka, zuen oreka? Gure ustez, enpresa batzuei mesede egin zaie, eta ez herritar guztiei. Gure ustez, benetako politika eskuindarra.

3.- Politikoki ez dira Ordenantza Fiskalak lantzen, badator urtea, dagokion portzentajea aplikatzen diogu (oreka besterik ez dugu kontuan hartzen) eta beste urte batera arte gauza bera egingo duzue. Sozialistok urteak daramatzagu Ordenantza Fiskalen inguruko eztabaida sakona planteatzen, eta hori, batez ere, eztabaida proposatzen dugu, zuzenagoak izateko eta zergak eta tasak udalerriaren eta bertako jendearen errealitatera egokitzeko, haiek ordaintzen baitute.

4.- Egia da ordenantzak hobariak jasotzen dituela energia berriztagarrientzat, baina uste dugu hobaria baino askoz ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela energia berriztagarriak bezalako gai garrantzitsu batean. Honek funtzionatzea nahi badugu, handinahiagoak izan behar dugu.

Duela bi urte, Udal Talde Sozialistak, zehazki 2019ko urriaren 29ko Osoko Bilkura Berezian, beste behin ere, aurreko urteetatik egiten genituen proposamen batzuk aldarrikatu zituen, besteak beste:

1.- Hobariak emateko baldintzak aztertzea.

2.- Zabor bilketaren tasaren hobariarekin lotutako gai bat.

3.- Kiroldegiko kuotari hobaria emateko aukera aztertzea, igerileku klimatizaturik ez izateak duen eraginagatik.

Urtebete igaro da, eta ez alkateak, ez gobernu-taldeko ezein kidek, ez batzordeko lehendakaritzak ez diete jaramonik egin Osoko Bilkura honetan erregistratutako proposamen horiei. Ez da berria,

subida va a suponer una carga económica importante en todos los hogares.

2.- No entendemos la congelación de la tasa de agua. Si a la mayoría de tasas e impuestos les aplicáis una subida del 2,9%.

A la pregunta en la Comisión se nos contestó que era “para buscar el equilibrio”. El equilibrio de que?, vuestro equilibrio? Creemos que lo que se ha hecho es beneficiar a algunas empresas y no, a toda la ciudadanía. A nuestro entender una autentica política de derechas.

3.- Políticamente no se trabajan las Ordenanzas Fiscales, llega el año en curso, le aplicamos el porcentaje correspondiente (sin tener en cuenta nada más que el equilibrio) y hasta otro año que volveréis a hacer lo mismo. Los socialistas llevamos años planteando un debate profundo de las Ordenanzas Fiscales, proponiendo eso fundamentalmente, debate, con el fin de ser más justos y de que los Impuestos y Tasas se ajusten a la realidad del municipio y de sus gentes, que son los que pagan.

4.- Es verdad que la ordenanza recoge bonificaciones para energías renovables, pero creemos que se debería hacer muchísimo más esfuerzo que una bonificación en un tema tan importante como son las energías renovables. Si queremos que esto funcione, hay que ser más ambiciosos.

Hace dos años, el Grupo Municipal Socialista, concretamente en el Pleno Extraordinario del día 29 de octubre de 2019, reivindicaba una vez más, una serie de propuestas, que veníamos realizando desde años anteriores, entre ellas solicitábamos:

1.- Análisis de las condiciones para la concesión de bonificaciones.

2.- Un tema relacionado con la bonificación en la tasa de la recogida de basura.

3.- Estudio de posibilidad de bonificar la cuota del polideportivo, por la afección que supone no tener piscina climatizada.

Bien, ha pasado un año, y ni el Alcalde, ni ningún miembro del equipo de gobierno, ni la presidencia de la comisión han hecho caso a estas propuestas registradas nada más y nada menos que en este

luze dator. Eta horrek esan nahi du, beste behin ere, ez duzuela hitzik, eta gehiengo osoa erabiltzen duzuela gutxienez oposizioaren proposamenak eztabaidatzea eragozteko.

Pleno. No es nuevo, viene de largo. Y esto significa, una vez más, que no tenéis palabra, y que utilizáis la mayoría absoluta para impedir que cuanto menos, se debatan propuestas de la oposición.

Osoko Bilkura horretan bertan, Mikel Pagola alkateak honako hau adierazi zuen: "Ez dut uste gai horiek ordenantza fiskalak egin arte itxaron behar dutenik, urtean zehar informazio-batzordeetan aztertu beharreko gaiak izango liratekeelako".

En ese mismo Pleno, el entonces Alcalde Mikel Pagola, manifestaba: ”Que no cree que estos temas deban esperar a la elaboración de las ordenanzas fiscales, que serían temas a tratar en las comisiones informativas a lo largo del año” Esto se decía en 2019.

2020ko ordenantzetan, bozeramaile horrek berriro errepikatu zituen Udal Talde Sozialistaren proposamenak. Oraingoan, Jorge Segurado egungo alkatearekin. Emaitza bera, hala ere.

En las ordenanzas del 2020 este Portavoz volvía a reiterar las propuestas del Grupo Municipal Socialista. Esta vez con el actual Alcalde, Jorge Segurado. Mismo resultado, caso omiso.

Horregatik guztiagatik, gure taldeak Ordenantza Fiskalen Proposamen honen aurka bozkatuko du, igoeran gehiegizkoa delako, jartzen zaion ahalegin txikiagatik, eskaintzen zaion lan eskasagatik, erabakitzeko borondate politiko faltagatik, oposizioarekiko begirune eskasagatik, gehienetan lan handia hartzen baita gero EAJk arrabola pasa dezan.

Por todo ello, nuestro grupo va a votar en contra de esta Propuesta de Ordenanzas fiscales, por exagerada en la subida, por el poco empeño que se le pone, por el escaso trabajo que se le dedica, por la falta de voluntad política para acordar, poca consideración a la oposición, que la mayoría de veces se toma mucho trabajo para que luego el PNV pase el rodillo.

Hau Ordenantza Fiskalak baino gehiago da. Zuen kudeaketaren isla garbia da hori.

Esto son más que unas Ordenanzas Fiscales. Esto es un claro reflejo de “vuestra gestión”.”

De Miguel andreak azaldu du batetik EHBildu online egon behar izatea islada dela gobernuaren egiteko moduak. Alkateak esan zuen bere 7ak izatea duela helburu, eta 13ak bilatu beharko lituzkela. Konsensua bilatu beharrean, 7 bilatzeko aleginean daude. Ez dira besteak baino hobeak eta 13k egin beharko lukete lan. Oso denbora gutxirekin planteatu dituzte ordenantzak. Bigarren berdintasun planak ez al du balio? Zerbitzuak ez dira egoki ematen ari eta dirulaguntzak ez dira iritsi. Eta gaurko planteamenduan ere, banko de alimentos ere azpikontratatuko dute. Eztabaida gabe egiten dute dena. Seguru daudela elkarpuntuak, baina eurek 7rekin bakarrik dihardute. Ez dira lanak aurrera ateratzen. Ez dira iristen eta ez diete laguntzen uzten. Zer argumenturekin igo dituzte tasak? 1,5 soberan litzateke udalak gestionatzen ikasten duen bitartean. Beraiek badute proposamen idatzia taula eta kalkuluetan oinarritua. Eskua zabaltzen jarraitzen dute.

La Sra. De Miguel explica que por un lado, el hecho de que EHBildu tenga que estar online es un reflejo de las formas de hacer de este gobierno. El alcalde dijo que su objetivo era que estuvieran sus 7, y que debería buscar los 13. En vez de buscar consenso, están intentando buscar 7. No son mejores que los demás y deberían trabajar los 13. Han planteado las ordenanzas con muy poco tiempo. ¿No vale el segundo plan de igualdad? Los servicios no se están prestando adecuadamente y las subvenciones no han llegado. Y en el planteamiento de hoy también subcontratarán a Banko de alimentos. Lo hacen todo sin debate. Seguro que hay puntos de encuentro, pero ellos sólo trabajan con 7. No salen adelante las obras. Ni llegan y no les dejan ayudar. ¿Con qué argumento han subido las tasas? 1,5 sobraría mientras el ayuntamiento aprende gestionar. Ellos tienen una propuesta escrita basada en tablas y cálculos. Siguen tendiendo la mano.

Pagola jaunak datu batzuk ematen hastea komeni dela dio. Egiten den planteamenduan, 2,9ko igoera planteatzen bada ere, hobariak eta igotzen ez diren

El Sr. Pagola comenta la conveniencia de comenzar a aportar algunos datos. En el planteamiento que se hace, aunque se plantea un incremento de 2,9,

zergak kontuan hartuta, presio fiskala (herriko familiek jasango duten igoera, non 4 zerga kontuan hartzen diren: zaborra, ura, ibilgailuak eta IBI), 2021. urtean 632 euro ordaintzen ziren batazbeste. 2022an 640 euro ordaintzera aterako da batazbeste, 8 euro gehiago soilik. Hori da oposiziotik saldu nahi izan den ikaragarrizko igoera. Eta Zerbitzuak ez direla ematen, egokitu egin behar izan dira pandemiara, baina aurreko urtetan zerbitzu eguneratu eta egokituak eskaini dira, herritarrak apuntatu ez direnean ezik. Eta horietan ere, ratioak jeitsi direnez, atentzio egokiagoak eskaini dira. 13rekin egokiago da beti, baina batzorde informatiboan eskenatokia ikusita, ezezkoan zeudela, erantzukizunez jokatu eta ordenantzak aurrera ateratzeko beharrezko bozkak behar zituzten, eta EHBildutik proposatu zen orduan ez zituzten bozka horiek, eta beraz, normalean egiten den bezela, 19tan egin da, eta telematikoki bada ere denen presentzia bermatu da. 48.000 euro gehiagoko sarrera estimatzen dira, 4.000.000tako sarreratik. %1 baino gutxiagoko igoera, tasa batzuetan 2,9 igo bada ere. Ura eta IBI ez da igotzen, eta horrek dena baldintzatzen du. 8 euro gehiago ordaindu beharko ditu bataz beste familia batek.

teniendo en cuenta las bonificaciones y los impuestos que no suben, la presión fiscal (subida que sufrirán las familias de la localidad, donde se tienen en cuenta 4 impuestos: basura, agua, vehículos e IBI), en el año 2021 se pagaban una media de 632 euros. En 2022 saldrá a pagar 640 euros de media, sólo 8 euros más. Esa es la escalofriante subida que se ha querido vender desde la oposición. Y que los Servicios no se prestan, han tenido que adaptarse a la pandemia, pero en años anteriores se han ofrecido servicios actualizados y adaptados, además de cuando la ciudadanía no se ha apuntado. Y también en ellas, al descender los ratios, se han ofrecido atenciones más acertadas. Han subido muchos gastos, y eso no se le repercutido al ciudadano. Con 13 es siempre más adecuado, pero viendo el escenario en la comisión informativa, cuando estaban en la negativa, tenían que actuar con responsabilidad y sacar adelante las ordenanzas con las votaciones necesarias, y se propuso desde EHBildu entonces no tenían esas votaciones, por lo que, como se hace habitualmente, se ha hecho en 19 y se ha garantizado la presencia de todos aunque sea telemáticamente. Se estima un ingreso de 48.000 euros más, de un ingreso de 4.000.000. Incremento inferior al 1%, si bien en algunas tasas se ha incrementado en 2,9. El agua y el IBI no sube, y eso lo condiciona todo. 8 euros más tendrá que pagar de media una familia.

Gonzalez jaunak erantzun du presio fiskalarena betiko argudio bera dela, ez dela igotzen, ez duela eragiten: Oso polita da, 8 euro igotzen da, baina 8 euro dira. Urari dagokionez, 1 edo 1,5 igotzea planteatu izan balitz, gainerako zergak ez ziren igo beharko. Axolagabekeriari dagokionez, urtearen gainerakoan, zerbitzu guztiak ez dira hobetu, igerilekuetan zerbitzua murriztu da baina berdin kobratzen da. Zer presio fiskal du horrek? Hobariei dagokienez, bonuen dirua ez da beste laguntza sorta baterako erabiltzen, zenbat da hori zerga-presioan? Urte osoan zehar begiratu behar da. Ordenantza fiskalak kudeaketari lotuta daude. Sozialistak ados daude zergak ordaintzearekin, baina 48.000 gehiago zertarako? Propaganda aldizkariak, kanpoko kontratuak? Horretarako, herritarrek 8 euro gehiago izango dituzte poltsikoan. Eta berriro ere ordenantza fiskalak serio eta sakon eztabaidatzeko eskatu dute. Epeei dagokienez, ordenantzak aurkeztu ziren egunean egutegia jarri zen epeekin, eta hori ez da batere lagungarria. Azterketa urte osoan garatzeko prest daude. Zaborrak edo igerileku klimatizatuen gaiak ere kezkatzen ditu, eta ez egoteak kostu larria dakarkie familiei. Eta hobariak diru-sarreren

El Sr. Gonzalez responde que el de la presión fiscal es el mismo argumento de siempre, que dicen que no sube, que no afecta… Queda muy bonito que sube 8 euros, pero esque son 8 euros. En cuanto a lo del agua, si se hubiera planteado su subida en un 1 o 1,5, no se hubiera tenido que subir el resto de impuestos. En cuanto a la indiferencia, mirando el resto del año, en cuanto a los servicios no todos se han mejorado, en las piscinas se ha reducido el servicio, pero se cobra lo mismo. Qué presión fiscal tiene eso? En cuanto a bonificaciones, el dinero que sobró de los bonos no se destinó a otra remesa de ayudas, cuánto es eso en presión fiscal? Hay que mirar a lo largo de todo el año. Las ordenanzas fiscales van unidas a la gestión. Los socialistas están de acuerdo en que se paguen impuestos, pero 48.000 más para qué? Revistas de propaganda, contratos exteriores? Para eso que los ciudadanos tengan 8 euros más en el bolsillo. Y una vez más vuelven a pedir que se debatan las ordenanzas fiscales seria y profundamente. En cuanto a los plazos, el día que se presentaron las ordenanzas ya se puso el calendario con los plazos, lo cuan no es nada facilitador. Se prestan a que se desarrolle el estudio durante todo el

araberakoak izan beharko lirateke, eta ahalegin handia egin beharko litzateke energia berriztagarrietan.

año. También les preocupa la basura o el tema de las piscinas climatizadas, que el no haber supone un coste serio a las familias. Y las bonificaciones deberían ir en función de los ingresos y habría que hacer un esfuerzo importante en energías renovables.

De Miguel andreak Pagola jaunari esan nahi lioke ez direla herri berdinean bizi antza. 48.000 euro 6.000 biztanle, 8 euro gehiago. Bizi duen Urnieta azalduko lioke. Hor ez da 8 euro jasan ditzakeen herri bat bakarrik. Ojala bere inguruan dauden herritarrak bere herrian biziko balira, berari ez zaizkio zenbakiak ateratzen eta ezezkoa emango dute.

La Sra. De Miguel le gustaría decirle al Sr. Pagola que no parece que vivan en el mismo pueblo. 48.000 euros 6.000 habitantes, 8 euros más. Le explicaría el Urnieta que vive. No es sólo un pueblo que puede soportar 8 euros. Ojalá si los vecinos que están a su alrededor vivieran en su pueblo, a ella no le salen los números y votarán en contra.

Pagola jaunak datuekin kontestualizatzea ezinbestekoa dela dio, errealak baitira. Eskertu nahi dituzte jasotako proposamenak, naiz eta intentzioak gehiago ziren proposamenak baino, baina aurrera begira eztabaidatzeko hainbat gauza daude. Eta gogoeta batekin bukatzeko, gaur erabili duten argumentu bera gipuzkoako herri guztietan, diren kolorekoak direla, erabiltzen ari da. Eta jarrera eta rol berdinak ematen ari dira gobernuan eta oposizioan, eta horrek denori gogoeta batera eraman behar gintuzke.

El Sr. Pagola dice que es imprescindible contextualizar con los datos, ya que son reales. Quieren agradecer las propuestas recibidas, pero las intenciones eran más que las propuestas, pero de cara al futuro hay cosas que debatir. Y para terminar con una reflexión, el mismo argumento que han utilizado hoy está siendo utilizado en todos los pueblos guipuzcoanos, sean del color que sean. Y se están dando las mismas actitudes y roles en el gobierno y en la oposición, lo que debería llevarnos a todos a una reflexión.

******

******

Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 6. artikuluak ezartzen duenaren arabera Gipuzkoako udalerriei dagokie, foru arau honetan ezarritakoaren barruan, beren tributuak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, udal zergen foru arau erregulatzaileetan eta horiek garatzeko gainerako xedapenetan ezar daitezkeen berezitasunak eragotzi gabe, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori garatzeko emandako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

El artículo 6 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece que corresponde a los municipios guipuzcoanos, en el marco de lo establecido en esta Norma Foral, la exacción, gestión, liquidación, inspección y recaudación de sus tributos, sin perjuicio de las especialidades que puedan establecerse en las Normas Forales reguladoras de los tributos municipales y demás disposiciones de desarrollo, de conformidad con lo previsto en la Norma Foral General Tributaria y en las disposiciones dictadas en su desarrollo.

Ordenantza fiskalen bitartez, udalerriek aurreko apartatuan aipatutako araudia egokitu ahal izango dute bakoitzaren antolaketa eta funtzionamendu erregimenera.

A través de las ordenanzas fiscales, los municipios podrán adaptar la normativa a que se refiere el apartado anterior al régimen de organización y funcionamiento de cada uno de ellos.

Bestalde, udalerriek tasak finkatu eta exigitu ahal izango dituzte, udalaren herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagarentik, bai eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten eta udalaren eskumenekoak

Por su parte, los municipios podrán fijar y exigir tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal, así como por la prestación de servicios públicos o la realización de actividades administrativas de competencia

diren zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik ere.

Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamenaren inguruan Kontuhartzailearen txostena ikusirik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluak toki-erakundeei ematen dien erregelamenduak egiteko ahala kontuan hartuta, zergak ezarri eta eskatu ahal izango dira beren ordenantza fiskalen bidez. Eskumen hori osoko bilkurari dagokio, lege horren 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 7
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7

Kontra: 6
Urnietako Eh Bildu: 4
Udal talde sozialista: 2

Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntza Batzorde Informatzaileak 2021eko urriaren 7an egindako irizpena,Udalbatzarrak gehiengo osoz honako hau

**ERABAKI DU:**

**Lehenengoa-** 2022rako Ordenantza Fiskalen aldaketaren hasierako onarpena ematea onartzea (I Eranskina).

**Bigarrena.-** 30 lanegunez iragarki hau GAO-n argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita jendaurreko informazio-aldian jartzea interesdunek espedientea azter dezaten eta bidezkoak derizkioten erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten:

Espedientea Udaleko idazkaritzan dago 08:30 etik 14:30etara .

municipal que afecten, afecten o beneficien especialmente al sujeto pasivo.

Visto el informe de la Interventora sobre la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales

En virtud de la potestad reglamentaria que el artículo 4.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, atribuye a las Entidades Locales, el establecimiento y la exigencia de tributos podrán realizarse mediante ordenanzas fiscales propias. Esta competencia corresponde al Pleno en virtud de lo dispuesto en el artículo 22.2.d) de la citada Ley.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 7
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7

En contra: 6
Urnietako Eh Bildu: 4
Grupo municipal socialista: 2

Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Organización de 7 de octubre de 2021, el Pleno ha adoptado por mayoría absoluta el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales de 2022 (Anexo I).

